

LURREAN

Lurrari lotuta darama gizakiak
bere errainua, bere historia.
Lurrari itsatsirik darama gizakiak
bere itzala argitan;
itzal haundi edo txikia,
eguzkierlojua bailitzan.
Lurrari lotuta, itsatsirik,
darama gizakiak
urteetan pilatutako zama;
zama arina edo astuna.

Lurrean marrazten duen errainuan
datza gizakia,
hilobi ibiltari.

Argia itzaltzen denean, ordea,
gizakiak ez du
errainurik idazten bidean,
ez atzean ez aurrean.
Orduan, zutik datza
eta, hilotz,
bere historia izkiriartzen du
bizitzaren kaiera ilunean.



MUNTTAR